

'Gazteak Irakurtzen' lehiaketa abian jarri du Bermeoko GIZek

Bost eleberriren gaineko galderak erantzun beharko dituzte parte hartzeko 16 eta 35 urte bitartekoek.

I. Fradua. Bermeo.

Udalerriko 16 eta 35 urte bitarteko gazteengan euskerazko eleberrien irakurzaletasuna butzatzeko lehiaketa berritzailea antolatu dute Bermeoko GIZ-ek, Euskera Sailak eta Udal Liburutegiak elkarlanean.

'Gazteak Irakurtzen' izango da lehiaketaren izena, eta hurrengo bi hilabeteetan bost liburu irakurri eta hauen gaineko bost galderen erantzuna eman beharko dute parte hartzaileek. Horrela, euskerazko bost eleberririk irakurtzeko eta planteiatzen diren galderari erantzuna emateko urriaren 1etik azaroaren 28ra arteko epea izango dute Bermeoko gazteek. Lehenengo lau itaunen erantzunak liburuan bertan izango dituzte, eta bosgarrenean berriz 'irekia izango da, irakurlearen iritzia izango delako kontutan eta baita akast ortografikoek ere', azaldu zuen Iñaki Lopez GIZeko -Gazte Informazio Zerbitzua- arduradunak. Zehazki, liburuak Jin Thompson-en 'Hiltzailea nire baitan', Fernando Morilloren 'Seximenduz', Asel Luzarragaren 'Karonte', Amelie Nothomb-en 'Durduraz eta dardaraz' eta Miren Agur Meaberen 'Urtebete itsasargian' izango dira. Erantzunak Udal Liburutegian, GIZen, liburutegia@bermeo.org helbidean edota posta arruntez helarazi ahal izango dira.

Lehiaketak hiru sari banatuko ditu. Irabazleak liburu denda batean gastatzeko 150 euro izango ditu, bigarrenak 100, eta hirugarrenak 50. Hirurek jasoko dute diploma oroigarri moduan.